



Osakidetza



EIBARKO UDALA ETA OSAKIDETZAREN ARTEAN IZENPETUTAKO LANKIDETZARAKO HITZARMENA. FINKAREN DOAKO LAGAPENA ETA, ONDORIOZ, OSASUN EKIPAMENDUA ERAIKI EDO, HALA BADAGOKIO, SUSTATZEARI BURUZ ALDERDI BAKOITZAK DITUEN KONPROMISOAK ARAUTZEA DA BERE XEDEA.

Eibarren, 2011ko abenduaren 13an

BATZARTUTA

Alde batetik, Miguel DE LOS TOYOS NAZABAL, Alkate gisa, Eibarko Udalaren izenean eta ordezkartzan. Egintza honetarako beren beregi ahaldunduta dago, 2011ko abenduaren 2ko Udal horren Osoko Bilkurak adostuta, Udalaren Idazkariak emandako ziurtagiriarekin bat etorruta eta, gainera, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21 s) artikuluan aurreikusitako eskumenen arabera.

Bestetik, Julian PEREZ GIL Zuzendari Nagusi jauna, **OSAKIDETZA** Herri Erakundearen ordezkartzan. Erakunde horren izenean eta hori ordezkatzuz dihardu, Osakidetzaren Administrazio Batzordeak 2009ko maiatzaren 25ean adostutako izendapenaren arabera (EHA Oren 108 zk., 2009/06/09).

ADIERAZTEN DUTE

I.- Eibarko Udalak Konstituzioaren 140. artikulua aurreikuspena betez, udalerraren gobernu eta administrazioa gauzatzen ditu nortasun juridiko osoz eta bere interes propioak kudeatzeko behar duen autonomiaz.

Eta, ildo horretan, herri-zerbitzuen prestazioak Eibarko udalaren eskari berriei egokitu behar zaizkie. Zehatz-mehatz eta, orain dagokigunari buruz, osasun-zerbitzu publikoaren prestazioa.



Osakidetza



II.- Osakidetza Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Sailari atxikitako Herri Erakundea dela. Euskal Autonomia Erkidegoan eskaintzen ditu osasun zerbitzuak eta bere jardueraren xedea osasuna sustatzea, gaixotasunen prebentzioa, sendatzea eta bizkortzea, hori guzti hori Osasun Planetik eratorritako lehentasunen arabera.

III.- Horrela, Eibarko Udalak eta Osakidetzak indarrak bildu dituzte udalerrian osasun-ekipamendu berria eraikitzeko. Horren tamaina eta funtzioak Eibarko herritarren gaur egungo eta etorkizuneko beharrezanei arreta emateko nahikoak dira, eta horrela, paziente azpiakutuentzat Osakidetzak eskainitako ohe kopurua handitzen lagunduko du, hain zuzen, herritar dentsitate handiena eta hobeto komunikatuta dagoen Bilbo-Donostia ardatzeko erdialdeko eremuko udalerrian.

Eta, hori kontuan hartuz, alderdi bakoitzak honako Hitzarmena izenpetu du finka lagatzeko eta ondorengo eraikuntza egiteko edo, bestela, osasun-ekipamendua sustatzeko dauzkan konpromisoak arautzeko xedez.

Lankidetzarako hitzarmena izateko aukera hori Herri Administrazioen araubide juridikoari eta prozedura administratiboari buruzko legerian jasota dago. Horien arabera, oinarriko hurrengo printzipioak daude: eraginkortasuna, herritarrei zerbitzatzea eta Administrazioen arteko lankidetzeta eta elkarlaguntza. Ildo horretan, aipatu behar ditugu Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen hurrengo artikulua: 3.4.1.d); 4.5; eta 6.

Zehatz-mehatz, Eibarko Udalak laga beharreko finkari dagokionez, Toki Araubide arloko Indarreko Lege Xedapenen Berregindako Testuaren 79.2 artikuluan eta Tokiko Erakundeen Ondasunei buruzko Arautegia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 109.2 artikulua nabarmendu behar dira. Horretarako baldintza, kasu honetan bezala, helburuak udalerriko herritarren onerako izatea da.



Osakidetza



Aurreko azalpenarekin bat etorritik, bakoitzak duen ordezkaritza onartzeaz gain, alderdiek elkarri aitortu diote honako LANKIDETZARAKO HITZARMENA, harpidetzeko eduki beharreko gaitasun juridikoa, eta hurrengo baldintzen arabera formalizatu dute.

BALDINTZAK

Lehenengoa.- Hitzarmenaren helburua.

Honako Hitzarmenaren helburua Eibarko Udalak eta Osakidetzak beren gain hartutako konpromisoak eta erantzukizunak ezartzea da, Eibarren osasun-ekipamendu berria eraikitze aldera.

Gaixotasun kroniko konplexuak dituzten pertsonak atenditzeko, proposatutakoaren moduko ospitale espezializatuak eduki beharra, gaixotasun kronikoen epidemiologian eta horien ondoriozko zainketa-beharrizanetan izandako aldaketatik dator.

Zehatz-mehatz, Ospitale berria udalerrri honetako Otaola etorbideko, 6-8 zenbakian kokatuta dagoen orube batean eraikiko da. Lurzoru hori lehenago *Mendiguren y Zarrua* enpresak okupatzen zuen eta erregistratutako azalera 7.444 m²-koa da.

Bigarrena.- Osasun alderdien konpromisoak

Eibarko Udalaren aldetik

1.- Eibarko Udalak Jabetza Erregistroko 2106 finka eskuratzea, Otaola etorbidearen 6.ean kokatua dagoena eta 7.444 m² dituena.

Jarduera ekonomiko komunaren erabilerarako Plan Orokorreko egungo antolamenduak ezartzen duenaren arabera, lursail honek "orube" izateko baldintza urbanistikoak betetzen ditu, aurreko aprobetxamenduari zegozkion 9.600m²rekin eta lerrokapen berriak ezarriz lortuko diren 5.000m² berriekin.

Osasun-ekipamendua instalatzeko, planteamendu aldaketa bat egin beharko da, lursaila birkalifikatzeko eta beharizan asistentzialak eskaintzeko behar den azalera eraikigarria emateko.

2.- Finka eskuragarri uztea prest dagoenean eta Osakidetzak hala eskatzen duenean.



Osakidetza



3.- Toki-erakundeen Ondasunen Araudiaren 110. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondasunen doako lagapenari dagokion espedientea irekitzea, Eibarko Udalaren Jabetza Erregistroko 2106. finka, Otaola etorbidearen 6.ean kokatua dagoena eta 7.444 m² dituen, Euskadiko Ondareari doan lagatzeko xedez.

Eibarko Udalak administrazio-espedienteari hasiera eman beharko dio, Jabetzaren Erregistroaren ziurtagiria eskuratzen duenetik 2 hilabeteko epean. Toki-erakundeen Ondasunen Araudiaren 110 artikuluan b) atalean ezarritakoaren arabera, "R" Exekuzio-unitatean "ekipamenduetara" zuzendutako lursaila Eibarko Udalaren ondasun gisa inskribatua dagoela egiaztatu beharko da.

4.- Higiezinaren doako lagapena behin gauzatuta, denbora mugarik gabe egingo da, lagatako higiezinaren erabilerari betiko eusteko ezinbesteko baldintzarekin.

5.- Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren aldaketari ekiteko, urtea bukatu orduko beharrezko tramiteak hastea, lursaila osasun-ekipamendu gisa kalifikatua izan dadin.

6.- Edozein hirigintza-arazo konpontzeko beharrezko jarduerak aurrera eramatea, eraikuntza, edota, hala badagokio, eraikinaren sustapena, eta osasun-ekipamendu berriaren jarduera Udalaren egungo hirigintza araudira egokitze.

Adierazitako hau, Hitzarmen honetan azaldutako higiezinaren doako lagapena behin betirako onartzen denean eta Eusko Jaurlaritzak baiezkoa eman ostean gauzatuko da. Era berean, beharrezko liratekeen dokumentu publiko zein pribatuak izenpetuta egon beharko dira.

Osakidetzaren aldetik

1.- Orubea egokitzeak gastuak bere gain hartzea, besteak beste, osasun-ekipamenduaren aurreikusitako kalifikazio karga eta gastuei dagokiena, eta baita ondorengo eraikuntza edota, hala badagokio, osasun-ekipamenduaren sustapena.



Osakidetza



2.- Finka, aurreikusitako eranskinaren arabera, osasun-ekipamendurako bideratzea.

Finka hitzartutako helbururako erabiliko ez balitz, lagapena bertan behera geldituko da, eta finka Udalari itzuliko litzaioke. Horrez gain, Udalak finka aurreikusitako helburuari begira lagapena egiteko izan dituen gastuak ordaintzera behartuta egongo da Osakidetza.

3.- Eibarko Udalari, osasun-ekipamendu berria eraikitzeke lizentzia eskatzea, edota, hala badagokio, honen sustapena egitea, Eusko Jaurlaritzak doako lagapena egitea onartzen duenetik hasita hiru hilabeteko epean, (beti ere, eraikuntza proiektua erredaktatzeko epe maximoa igaro denean). Dagokion kontratua indarrean sartzen den datatik hasita, Osakidetzak obrak 30 hilabeteetan amaitzeko obligazioa hartzen du.

4º.- Osasun-zerbitzuak ekipamendu berrian eskaintzea, Osakidetzak onartutako Plan funtzionalaren arabera,.

5º.- Osasun-ekipamendu berriaren eta hau eraikiko den lursailaren funtzionamendu, mantentze, kontserbazio eta konponketa gastu guztiak beregain hartzea.

Hirugarrena.- Inplikazio ekonomikoak

Hitzarmenaren sinatzaile bakoitzak, hartutako konpromisoak aurrera eramateko, tramitazioen berezko gastuak beregain hartuko ditu.

Laugarrena.- Jarraipen Batzorde mistoa

Eibarko Udalak eta Osakidetzak, Hitzarmen hau sinatu ostean, bi kidez osatutako Jarraipen Batzorde mistoa eratuko dute; bata Eibarko Udalekoa eta bestea Osakidetzakoa.

Bostgarrena.- Baldintza suntsiarazlea



Osakidetza



Hitzartutako akordioak bete ezean, ebazteko, aldaberritzeko edo aldatzeko aukera izango da, kontrako alderdiari jakinarazi eta Jarraipeneko Batzorde mistoan eztabaidatu ondoren.

Kasu hauetan, alderdi biek edozein kalte-ordaini (ekonomikoak zein bestelakoak) uko egingo diote.

Seigarrena.- Lege araubidea eta dagokion Jurisdikzioa

Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta bertan xedatutakoari jarraituz eta Administrazio Zuzenbidean ezarritako arauak aplikatuz arautuko da.

Bi alderdiak bat datozela eta adostutakoa beteko dutela ziurtatzeko, honako dokumentu hau bikoiztuta sinatzen da, goiburuan zehaztutako leku eta egunean.

Eibarko l

Sinatua

OS